

## ROBINSON

Gure mundua txikia da
Urez beterik ia dena.
Europa, Asia, Amerika
Uharte hutsak baino ez dira

Robinson gure izena
Guztiok izen berbera

Haietariko bakoitzean
Beste hainbeste biltzen dira
Eta horien barruan, ber moduan,
Dira gordetzen beste hamaika.

Robinson gure izena
Guztiok izen berbera

Begira naufrago horri
Zure antza daukanari
Irla bat duzu so zuri
Irla bat eta begi bi

Uharte bana baikotzeko
Uharte bana betirako
Geure burua dugu auzoko
Auzo bakarra sekulako

Ostiralik gabeko Robinson.

## LARRIKI MAITEMINDUARENA

Bi esku baino gehiago
Nahi nituzke nik izan
Osorik laztantzeko
Nire kuttun eztia.
Oinetan hasi eta bururaino
Egun osoz nuke ibiliko
Minutuak ezabatzeraino
Hamaika laztanen poderioz.

Bakar bat ez da aski
Gutxienik behar nik bi
Bi aho, bi ezpain pare
Mun egiteko hari.
Musuak musu, laztanak laztan
Ezin inoiz nahi adina eman
Denbora beti labur eta eskas
Oharkabean egiten da joan.
Ahal bazintuzket nik jan
Zu gorde ene baitan
Ez bereiztu sekulan
Banatu arte heriotzak.

Bihotz bat zein guti den
Zama honen eramale
Astun oso amodioez
Kabitu ezinik pozez.
Batzuetan laster gelditukо ote
Susmo ilunak nau atxikitzen
Izan dadila bada halaxe
Ondoan badut nik ene maite

## MISTERIORIK BADA

Lainoaz bestalde zer egongo ote?
Ibar gozo edo batere ez
Ur gardeneko erreka baten
Kantu amoltsua edo orroe?

Misteriorik bada izan zu zara
Guztien artean handiena
Nahiz eta anitz urte zurekin pasa
Ezin inoiz jakin zertan zaren.

Hilko garela, zalantzarik ez
Ugari ordea horren ondoren.
Zeru-infernuak, huts alimale,
Zer daukagun zain asma al daiteke?

Bola bat, kristalezkoa,
Nahi nuke neronek izan
Eta ikusi etorkizuna
Historia balitz bezala



## LAGUN AMNESIKOAK

Nitaz ahazteaz ahaztu beti
Nitaz ez, ezin ahantzi

Bada jende mota bat
Nahiz eta urte anitz pasa
Izorratzeko bada
Nitaz ahaztu ezin dena

Nitaz ahazteaz ahaztu beti
Nitaz ez, ezin ahantzi

Lagun amnesikoak
Bat-batean osatu
Eta berdin bat-batean
Nitaz dira oroitu

Nitaz ahazteaz ahaztu beti
Nitaz ez, ezin ahantzi

Behin betirako ahaztua
Horra zein dudan ametsa
Ez nazatela gogora
Ahaz nazatela

Nitaz ahazteaz ahaztu beti
Nitaz ez, ezin ahantzi

## NAHI DUZUNA

Esanen dizut zuk nahi duzuna

Esana dizut behin eta berriro
Deus ez dela betiko
Oro aldatzen da etengabean
Mundu honetako aferetan
Goizean ederra izan den lorea
Zimeldu da arratsean
Halako batean zeru goibel zena
Oskarbi bihurtu da.

Esanen dizut zuk nahi duzuna

Zerua irudi gure bihotza
Kolorez aldatzen da
Maitatzeko elkar emandako hitzak
Ez dira deusen berme
Sentimenduak ezin dira izoztu
Legatz baten moduan
Bizi biziak behar dute izan
Eta beraz aldakorrak

Esanen dizut zuk nahi duzuna

Zu bezain beldur izaten naiz ni
Aldaketaren beldur
Eta neuk ere nahi zintuzket izan
Alboan uneoro
Begiak hedatu eta zu ikusi
Beste zernahiren aitzin
Eta orduan pozik zuri begira
Maite zaitut esan.

Esanen dizut zuk nahi duzuna

## OROIMENA

Bart ametsetan berriro ikusi haut
Hiri honetan erabat galdua
Baten batek hire ondotik pasatzerakoan
Agurtu hau hire laguna bailitzan

Oroimena, beti oroimena

Maiz gelditu haiz hire paseoan
Joan zerbait kausitu nahiean
Noizbait karrika hauetan zebilen gazteak
Bere burua bota omen zian.

Oroimena beti oroimena
Oroimena zein zama nekeza.

## KARRIKA ILUNAK

Gogoak badu bazter ugari
Arriskuz beteak direnak
Gogoak badu bazter ugari
Bide, errepide, karrikak.
Hara joatea ez da komeni
Iratzar daitezke mamuak
Gugan sartu ahala barru-barrutik
Gu jaten saiatzen direnak.

Karrika ilunak (hona karrika ilunak)
Karrika ilunak (neure-neureak)

Ez ziren atzo gugana iritsi
Karrika horietan dabiltzanak
Beraz, gugandik ezin egotzi
Geu bezain zaharrak baitira
Gurasoengan ere egonik
Jo ahal ditugu senidetzat
Odolez odol pasa elkarri
Odolez odol, berbaz-berba.

Nahikoa da, bai nahikoa da
Hitz bakar bat (karrika ilunetan)
Aski baita



## URAK GU ERAMAN

Badira urteak pasa ez direnak
Egutegitik erauziak
Badira egunak argigabeak
Ongi ikusteko aproposak.
Baina horiek oro zer axola
Nori diote gaur ardura
Etorkizunik gabeko oraina
Besterik ez daukagunean?

Jakinen banu nora goazen
Ez nekike deus berezirik
Izan, ez izan, nor da hemen Hamlet?
Ez gara Danimarkan bizi.
Urak gu eraman noraezean
Beste hainbat hondarrez batera
Zirimol anker baten menean
Bagoaz itsaso ilunerantz

Ez, ez dago zer eginik
Ez, ez dago beste ezer
Ez, ez dugu beste aukerarik
Nahi badugu mundu ziztrin honetan iraun.

## GAZTE SASOIA JOAN

Berriki arte guztien lagun
Omen zen hura bakarrik dago
Bere ahaleginak oro debalde
Ez baitu inor orain aurkitzen
Kalez kale dabil
Zakur deslai baten antzo
Kalez kale dabil
Baina alfer-alferrik

Gazte sasoia joan eta bakarrik
Gazte sasoia joan oso azkar
Gazte sasoia joan eta bizitza
Orduantxe hasten da benetan

Adiskideak eta lagun minak
Edozein anaia baino anaiago
Zituen haiek zaizkio arrotz
Ia erabat gaur gauean
Ustez betirako
Ziren haiek joanak dira
Eta orain ezagutu ere
Ez dute egiten

Bere burua lagun bakarra
Bere burua etsai gorria
Bere burua galtzera doa
Galtzera doa
Galdurik dauka.

## KASURIK EZ

Badira loreak ederrak direnak
Baina gutxi fido horietaz
Ez dira diruditena
Haginak zorrotzak eta ongi gordeak
Haietan pausatzen dena
Betiko egin du bereak.

Beraz kasurik ez
Itxurari ez, azala ederra baita
Ez mamia
Sagarrik politena izanik ere
Harra ukan dezake barrenean

Bide bazterrean guztion apeta
Hara non diren ageri onddorik kunplituenak
Orbelan deigarri, kolore biziaz
Pozoinaz dute zigortzen bahitu nahi dituena.

## LEGERIK DORPEENA

Sortu orok hil behar
Hala pizti dorpeenak
Nola lili xingleenak
Hori baita legea.

Inperioak erori
Eternala ere fini
Bat-batean desegin
Nork erranen du beti?

Baina ezin onartu
Lege hori
Gugan ere dela bete
Ez, ezin onartu...

### *ROBINSON*

Ours is a small world
Almost entirely flooded
Europe, Asia, America
They're nothing but islands

Robinson is our name
What we're called

Every island hides some others
And those in turn
Some more and so on

Robinson is our name
What we're called

Look at that castaway
Who looks like you
You have an island staring at you
An island and a pair of eyes.

An island for everyone
An island forever
We're our own neighbours
Our only neighbours for good

Fridayless Robinson.

### *MISTERIORIK BADA • if there is mystery*

What could there be beyond the fog?
A delicious valley or just nothing
The sweet song of a river of clear waters
Or a scream?

If there's any mystery at all
You're the biggest one
I could spend countless years by your side
And still know nothing about you.

There's no doubt that we'll die
But plenty of doubts after that
Heaven or hell, a huge void
Who knows what we've got in store?

I'd like to have a crystal ball
And see the future like it was history





### *LAGUN AMNESIKOAK • amnesiac friends*

They always forget to forget about me
They just can't forget me

There are some people
Who in spite of the years
Will never forget you
When it comes time to bug someone

All of a sudden the amnesiac friends recover
And as soon as they do
They remember me.
I dream that they'll forget me once and for all
They won't remember me anymore.

### *LARRIKI MAITEMINDUARENA • madly in love*

I'd like to have more than two hands
To caress my sweetheart all over
I'd start at her toes and move to her head
Until I erase the minutes with countless caresses

Just one isn't enough
I need two at least
Two mouths, two pairs of lips to kiss her
Kisses and caresses
Impossible to give as many as I'd like
Life is short, time flies
It's gone before we realize.

How little is just one heart
To carry this weight
So heavy with love
So full of happiness
Sometimes the feeling that it will stop takes me
So be it as long as I have my darling with me
Oh if I could devour you
Keep you inside me
Never leave you
Until death do us part.

### *NAHI DUZUNA • whatever you want*

Over and over I told you nothing is forever
Everything changes in this world
The beautiful morning glory fades by dusk
All of a sudden the dark turns to limpid blue

I'll tell you whatever you want to hear

Like the sky, our hearts change colour as well
Promises of eternal love don't guarantee anything at all
Feelings can't be frozen like fish
They have to be alive and everchanging

I'll tell you whatever you want to hear

I myself am scared as you
Scared of change
And I would like to have you forever by my side
To open my eyes and see you before anything else
And then, happily stare at you and say: I love you.

### *OROIMENA • memories*

Last night I saw you again
Lost in this city
Someone passing by your side
Said hello to you as if he were your friend

Memories always memories

You stopped in the middle of your walk
Looking for some long lost thing
They say the guy who used to walk these streets
Committed suicide

Memories always memories.

### *KARRIKA ILUNAK • dark streets*

The mind has dark corners
Full of risks
The mind has lots of corners
Paths, roads and streets
Better to avoid them
'Cause the sleeping monsters could wake up
Once they get inside us
They'll try to eat us from inside.

Dark streets (these are dark streets)
Dark streets (all mine

They didn't come yesterday
Those who roam these streets
We can't kick them out
They're as old as we are
They were inside our parents
They're almost relatives
Transmitted by blood
By our own blood and words

One word is just enough
(In these dark streets)
It's enough...



### *GAZTE SASOIA JOAN • youth gone*

The one who not long ago
Was everybody's friend is alone
All his efforts are in vain
He can't find anyone now
He roams the streets like a stray
He roams the streets in vain

Youth is gone and he's alone
Youth disappears fast
Youth is gone and
Real life starts then.

His best friends close as brothers
Seem almost strangers now
The ones he thought would be
There forever are gone
And they don't know him anymore.

He's his only friend
He's his own worst enemy
He's lost
He's utterly lost.

### *KASURIK EZ • don't pay any attention*

There are beautiful flowers
But don't trust them
They're not what they seem
They have sharp hidden teeth
And if someone touches them
He's a goner.

So don't pay any attention

To the way they look, the outside may be nice
But on the inside?
Even the most beautiful apple
May hide a worn inside

Just off the path, everyone's yen
Look, the best mushrooms
Calling from the dead leaves
Colourful, they save their poison
For whoever tries to kidnap them.



### *URAK GU ERAMAN • water carry us away*

There are years which never happened
Missing from the calendar
There are gloomy days
Good for clear seeing
But who cares
Who gives a damn
When all we have is a futureless present?

If we knew where we're heading
We wouldn't know anything special
To be or not to be
Who is Hamlet around here?
We don't live in Denmark
Water carries us away
Along with other trash
Caught in pityless turbulence
Bound for a dark ocean

No, there isn't anything else
No, nothing can be done
No, we don't have any other choice
If we want to survive in this shitty world.



### *LEGERIK DORPEENA • the cruelest law*

Everything born is bound to die
The bloodthirsty beast and the simple flower
That's the law.

Empires fall
The eternal ends
Tumbles down all of a sudden
Who will dare say forever?

But it's hard to accept that the law
Applies to us too
No we can't accept that the law
Applies to us.